



## Legebiltzarrari begira dira alderdi guztiak

**E**kainaren 12 eta 19an iraganen dira Frantziako Legebiltzarreko hauteskundeak. Orain arte Emmanuel Macronen Gobernuak zuen hor ere gehiengoa, eta xede zituen erreformak aitzina eraman ahal izan ditu azken bost urteetan. Bere politika neoliberala blokeatzeko asmoz, bozketa horiek irabazi nahi ditu ezkerrek eta nagusiki hitzordu horri begira egon da bi itzulien artean: izan Macron, izan Le Pen parean, Legebiltzarrean gehiengoa lortu nahian dabil.

Ezker muturreko Jean-Luc Melenchon atera zen lehendakarietzako hauteskundeetan lehen itzulian hirugarren indarra, botoen %21,95 lorturik –Le Pen baino 0,8 puntu gutxiago– eta bere inguruan batu nahi du ezkerria: "Bataila eder honetan gurekin bat egitera gonbidatzen ditut Herri Blokean sartu nahi duten guztiak. Hirugarren itzulia dago, ez da bigarren itzulian bukatzen kontua". Europe Ecologie Berdeak ekologistekin, NPA antikapalistekin, Alderdi Komunistarekin akordio bat lortzeko negoziaketak abiatuak ditu Melenchonon La France Insoumise alderdiak. Oraingoan, Alderdi Sozialista ez da negoziaketen parte, nahiz eta hitz egiteko irekidura erakutsia ukan.

Nahiz eta bigarren itzulian galdu, emaitza ona egin du Marine Le Penek –"gairaipen argia", hautagaiaren hitzetan–. Hautesleen %41,4ak bere alde bozkatuak, sostengu handia jaso du eta nola ez, Legebiltzarrean ordezkaturia izateko xedea du –gaur egun, 577 diputatuetatik soilik zortzi dira Le Penen Rassemblement National alderdikoak–. "Macronen politika bortitza oztopatzeko hautagai" gisa aurkezten da, funtsean, lehendakarietzarako kanpainan egin duen gisara.

Argi da Macronen 2017az geroztik eraman politikaz nazkatuak eta haserre direla herritar anitz. Ezker muturrera ala eskuin muturrera egingo du kexu dagoen hautesle horrek? Ezin argiki jakin. Segur dena da, bi aldeek dutela haien kanpaina giro horretan oinarrituko.

Nola ez, bere aldetik Macronen Legebiltzarrean gehiengoa atxikitzea du helburu –577 hautetsietatik 314 dira bere alderdikoak gaur egun–. Baina 2017an hautagaitza berria zena gaur egun ezagunagoa da eta bozketa honen bidez jakinen da zer nolako sostengua daukaten lekuko hautetsi horiek. Ezkerrean eta eskuinean arteko hiru kohabitazio izan dira iraganean: François Mitterrand presidente sozialista eta Jacques Chirac artekoa 1986tik 1989ra; Mitterrand eta Edouard Balladuren artekoa 1993tik 1995era; eta azkenik, Chirac presidente eskuindarra eta Lionel Jospin artekoa, 1997tik 2002ra. Ezkerrek batasuna adostea lortzen badu, laugarrena osatzeko aukerak daude. ●

# %34,5

Ipar Euskal Herrian emaitza hobea lortu du Emmanuel Macronen, botoen %65,5 jasoz. Parean, Marine Le Penek %34,5 eginik, Frantziako Estatuari alderatuz, zazpi puntu apalago gelditu da eskuin muturra. 55.907k diote botoa eman eskuin muturrari –lehen itzulian baino 26.746 gehiagok–. Frantziako Estatuaren tendentzia bere sendi da: urtez urte azkartuz doa eskuin muturra Euskal Herrian ere.

# %36,65

Abstentzioen eta boto zuri edo baliogabeen kopurua Frantzia osoa bezalako izan da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan gaindi. Macron ala Le Pen bozkatu ez dutenak %36,65 izan dira. Hala ere, bozka-lekura joan eta zuri ala baliogabe bozkatu dutenen kopurua handiagoa izan da Ipar Euskal Herrian: %11,63koa, Frantziako Estatuan %8,60 izan delarik.

# 3

Ipar Euskal Herriko, Florence Lasserre, Vincent Bru eta Jean Lassalle zentristak dira orain arteko diputatuak. Nahiz eta Macron lehen indarra atera, ikusteke dago zer nolako sostengua jasoko duten Legebiltzarrerako bozketan bere aldeko Bru eta Lasserrek –Lassalle aurkari du–. EH Bai-k ere aurkezteko hautua egin du, "alternatiba" gisa.